

## **Funtsezko jarduerak:**

### **EX-man taldea: Ondasunak gordetzeko takila zerbitzua.**

Gure lehenengo funtsezko jarduera lokal egoki edota apropos bat lortzea izango litzateke, kokapen egoki batekin. Kokapen zehatza, Tolosako triangulo plaza izango litzateke; izan ere, inguru horretan jende ugari ibiltzen da merkatu gunea delako. Gainera, larunbatetako azoka dela eta, gure zerbitzua erabiltzeko probabilitateak gora egingo luke.

Ondoren, gure lokarari forma emanaz, takilak ekoitzi, eta bertako segurtasuna eta garbiketa bermatzeko, lokala prestatzea beharrezkoa da.

Takilei dagokionez, metalez eginak izango dira, material egonkorra delako.

Bestalde, segurtasuna behar bezala bermatzeko, "Securitas Direct"-ekin harremanetan jarriko gara barruan kamarak ezartzeko. Gainera, kanpoan langile bat kontratatuko dugu bizkarzain moduan gure lokaleko segurtasuna ezin hobea izan dadin.

Horretazgain, banaketarako kotxe elektrikoa zein bizikleta lortu eta horiek modu seguru batean jasotzeko garaje bat alokatuko dugu. Kutsadura murrizteko helburua izanik gure enpresak, gertu kokatzen diren etxe bizitzetako bizikleta bidezko banaketa ahalbidetuko zaie eta beharrezko kasuetan soilik kotxe elektriko bidezkoa izango da.

Azkenik, gure enpresaren webgunea egitea izango litzateke azken pausua, bezeroei honi buruzko informazioa zabaltzeko eta inguruko informazioa ahalbidetzeko, gure enpresaren helburua ahaztea eta egonkortzea izanik hedatze modu berri honetaz baliatuko gara.